

APIRILA
2021

Lanberriak

ccoo.eus



MANIFESTAZIOAK

- **BILBAO** 11:30
Sagrado Corazón
- **VITORIA/GASTEIZ** 12:00
Virgen Blanca
- **DONOSTIA** 11:30
Alderdi Eder

AHORA
TOCA
CUMPLIR
Langile klaseari
zor diogu

#AhoraTocaCumplir



Maiatzak 1, Ekiteko garaia da

Eredu sozial eta ekonomiko bidezkoagoa eskatzen dugu, baita zerbitzu publikoak babestu eta indartzeko beharra, egoera zailen aurrean gizartea aurrera ateratzeko langileen lanaren balioa azpimarratuz.

Urte gogorra pasa dugu, osasun arloan batez ere baina baita ere arlo sozial eta ekonomikoan eta zerbitzu publikoak zein funtsezkoak gakoa izan dira.

Horregatik, maiatzaren lehen honetan, funtsezkoak izan diren zerbitzu horien parte izan diren langileei aitorpena egin nahi diegu.

Aitorpen hori ezin da keinu moral hutsean geratu, horien lan baldintzak hobe-

tuko dituzten ekintza eta konpromisoak ere beharrezkoak dira; ekiteko garaia da eta hori da eskatzen duguna.

Enplegua eta ekoizpen sarea babesteko neurri sozialak garatu ditugu, ERTEen inguruko akordioetan islatu direnak gehien bat baina ez bakarrak. Oraindik bide luzea dugu egiteko.

Negoiazio kolektiboan eta berdintasun planetan ekiteko garaia da, mobilizazioak eta grebak mantenduko ditugu lan eskubideak eta lanpostuak babesteko.

Premiazkoa da konpromisodun agenda soziala martxan jartzea.

Ekiteko garaia da.



- Lan erreformak atzera botatzea, lan merkatuaren dualtasunarekin bukatu, hitzarmen kolektiboen aurreraeragina berreskuratu, sektore hitzarmenek gutxieneko erreferentzia berreskuratzea eta enpresetan ezin aldatu izatea lan baldintzak okertzeko, kontrata eta azpikontratak arautzea bertan lan egiten duten pertsonen eskubideak hitzarmen bidez bermatzeko.
- Pentsio sistema publikoaren alde egitea eta PPrein Gobernuak 2013an ezarri zuen aldebakarreko erreforma indargabetzea.
- Genero arrakalak ezabatu emakume eta gizonen arteko erabateko eta benetako berdintasuna lortzeko

Herriak langileei zor die, horregatik, ekiteko garaia da, lan eta bizi baldintzak hobetzeko garaia.